

# “AGERIAK GORDE... GORDEAK AZALDU”

Elixabete Perez Gaztelu

Aspaldi batean (ez horren aspaldi, egia esan) gure artean erabiltzen zen diosala leihatilatxo honen gainean paratzeko beste edozein bezain egokia izan daitekeelakoan, noan afizioz eta ofizioz gertu-gertu dudan errenteriar handi baten aldekatxo baten kontu ematera.

Nork ez du alde edo moldez Koldo Mitxelenaren aditzerik izan, etxe eta kanpo? Orain dela zazpi urtetsu (1987ko urriaren hamaikan) utzi gintuen Goiko kaleko semearen ospea eta sona ez dira, beharrik, hezur-muinetan bizi zuen Errenteria kokorreen ahitzen.

Hurkoak bestea ezagut dezakeen sakonean ezagutu zutenek ederki asko dakite haren giza neurriaren berri. Mundu zabaleko hizkuntzalaritza-kontuetan dabilen jakintsu asko eta asko ere, lehen eta orain, txunditurik, ahoa bete hortz uzten dituzte unibertsitatean ikasi ez zuen maisu errenteriarrek bere lanetan zehar erakutsi dituen jakinduriak, zehaztasunak, zorroztasunak, eta aldi berean, zientzi egizaletasunak eta umiltasunak.

Bestek esana eta agerian utzia hornitzen eta merezimendu osoz irabaziak dituen lore-lorien sorta puztutzen ibili gabe, Koldo Mitxelenaren beste ixuri gordeago, apika, xumeago bati erreparatuko diot azalera edo ekartzeko gogoz. “Ageriak gordetzen eta gordeak azaltzen” saiatuko naiz, bada, besterik ez bada ere, Mitxelenaganatzeko akuilu gertatu nahi izatearen kariaz.

Zinema sortu zutela lehen mendea betetzen dugun honetan herriko zinema-talde hasi berriak Errenteriako bazterrak zeluloide-usainez zipriztindu dituela-eta, usain horri aitzakia polita deritzat lozorro baketsuegian datzan Koldo

Mitxelena zinemasale eta zinema-kritikagilea harro dezadan, labur bada ere, Errenteriako Oarso aldizkarian egiten dudan estreinu honetan.



Hirurogeita lau filmen eta antzerki-lan baten kritikak idatzi zituen Koldo Mitxelenak 1954-1961 bitartean *EGAN* aldizkarian, liburu-kritikek, ikerlanek eta bestelako eginkizunek uzten zizkieten tarteetan eta bere patrika urrixkoak sarrera ordaintzeko adina diru zuenetan, berak, kexu, salatzen duenez.

Lanok, guztiok, euskaraz (eta nolako euskaraz!) idatzi zituela esateari harakok, behar bada, arduragabeko iritziko dio. Garaian garaikoak ikusi behar, ordea, eta euskararen orduko egoera (hizkuntza-barneko eta hizkuntzaz kanpoko arazoak zirela medio) ez zen egokiena artean dantzatu gabea zen gai askotan erabiltzeko; zinema-kritika horietakotzat har daiteke.

Harrigarria da Mitxelena nola moldatzen den adierazkizunak euskaraz itxuratzen. Hona batzuk erakusgarri: *zine-etxe*, *taberna-zulo*, *erruki-etxe*, *antzeztoki*, *garibiltoki*, *-amets-fabrika-*, *predikuleku* (egungo *-tegi* atzizkiaren desmasiari *-\*anbulategi*, *\*monastegi*... sasikoei- aurre egiteko adibide aukerakoak), *argioihal*, *marrazki-film*, *film-andana*, *kartoi-itxura*, *Cannesko urrezko palmondo*, *Donostiako zinema-aste*, *Chaplin-zale*, *zinemagile*, *film eta nobela tesisdun*, *pailazokeria*, *txarlotkeria*, *mutur-jokalari*, *gizon-hiltze*, *kontu-garbitze*, *moda-erakusketa*... Egingo nuke egun ikuskizun-gaietan dihardutenak ez direla hutsean lehorreratuko Mitxelenaren itsaso zabal eta aberats honetan murgiltzetik.

Aditu asko jakinentzako kritiken bila dabilenak ez du, nik uste, Mitxelenaren hauetan bere egarria berdinduko; Mitxelena zinemazale eta zinema-ikusleak muzin egiten dio pelikulen "fitxa tekniko" hotza jendarteratzeari. Mitxelenak kritikagilearen eginkizuna gidaritzarekin lotua ikusten du ("Jendea bere lo nagian iraunderazteko ez dugu kritikaren beharrik (...) Jendea esnarazteko behar dugu kritika. Bestela, itsua badabil itsu-mutil, ongi jaiok gaude"), horregatik ez du aukerarik galtzen zenbait kritikagile ospetsu jipoitzeko: kritikarien erantzunkizuna baita ikusleen begietara iritsiko denaz bere iritzia zintzo ematea, "bustitzea", alegia, gehienen gustoko lanak izango ez direla jakinik ere.

Uste hori du Mitxelenak iparrorratz irakurle arruntaren jakin-gosea ase nahirik dabilenean; kritikagintzaren ikusmolde horri atxikiz, hain justu, oratzen ditu kritika-iruzkinak, bere-bereak dituen iritzia estali gabe.

Honela jakin ahal izango dugu Mitxelenak nahiago dituela pelikula itxuraz apalak, bitarteko gutxikoak, baina ikusleari pentsa- eta gogoetabidea ematen diotenak ("Rashomon" japonarra esate baterako), "Le ballon rouge" bezalakoak, bere ttikian amets-ateak zabaltzen dituenak...; hau da, "korapiloa, istilua dutenak", bere hitzetan esanez, handiuste zalapartatsua baina hutsak baino (Sacha Guitryrenak, kasurako); atsegin dituela Fellini-Massina, Charlot, Hitchcock maltzurra...; ez dituela gogoko "nobela eta film tesisdunak", ez eta "malko-ixurtze" merkea bilatu beste helbururik ez dutenak ere ("Escape from Fort Bravo"); higuin diela Ameriketatik heldu diren gisa bateko filmei ("indioak

beti galtzaile" aurkezten dituztenak, edo "The Prodigal" bezalakoak: "Esango nuke, eta asko esatea da, hau dela higuingarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi-biluxiekin, sortzen dituzten saltsa koipatsu horietan guztietan"... Hitz gutitan esanez, irakurlea laster asko ohartuko da Mitxelenak ezin eraman dezakeela ikusle-irakurlea ergeltzat hartzea.

Halabeharrez aurkezpentxo honetan gai ugari utzi ditut tintontzian -piska batzuk lardaskatu besterik ez dut egin-, baina bere ttikian uste dut Mitxelenaren islaño egokia izan daitekeela. Zuei, zinemazaleoi eta euskaltzaleoi zerrenda luzatzeko eta gizentzeko gomitea egiten dizuet, zinemaz eta hizkeraz puska bat ikasiz, aldi berean ongi pasatzeko (Mitxelenaren umore fina eta ironia-keinuak ez dira-eta zokoratzeakoak) aukera aparta izango duzue-eta.

Erreterriako maisuaren lantxo begi-gozagarri eta gogozirikatzaileok guztiok irakurtzea merezi badute ere -erruz samurtu du lana zinema-kritika guztiak Koldo Mitxelenaren *Euskal Idazlan Guztiak*, Euskal Editoreen Elkarteak kaleraturiko "Klasikoak" saileko 21. liburukian bilduta edukitzeak; bainarik ez, hortaz, ez irakurtzeko- aukerarik egin behar izanez gero bi nabarmenduko nituzke bukatzeko: Koldo Mitxelenaren mizto zorrotza dantzan noraino izan daitekeen urragarria ikusteko "Cancha Vasca" filmaz adierazia irakur ezazue. Koldo Mitxelena gizon eta prosa-maisuagana hurbildu nahi baduzue, Bergmanzale ez bazarete ere, dasta ezazue patxaran "Zazpigarren zigilua", ez zaizue damutuko.

Gomitea egina duzue: har, barnera eta goza. On dizuela!

PS. Poesiarako trebetasunik ez izaki eta, dakidantxoaren arrasto hau, iazko urriaren 15ean Iratiko oihaneko baso-oilarren eta Oriko xoriaren kantuak entzuten utzi genuen Juanjo Arzelus mendizale adiskideari eta Maria Luisa eta semeoi eskaini gogo dizuet.

